

e) Kontseiluko gainerako kideen % 66 honako hauen ordezkari izango dira: merkataritza-, industria- eta nabigazio-ganberenak, enpresa- eta sindikatu-erakundeak, eta portuen arloan garrantzi handia duten sektore ekonomikoak.

Bokalen izendapena, nahitaez, Administrazio Kontseiluan ordezkariak duten administrazio publikoek, erakundeek eta organismoek proposatuta egingo da. Estatuko Administrazio Orokorren kasuan, Estatuko Portuak erakunde publikoko lehendakariak egingo du proposamena.

Administrazio Kontseiluko bokalen izendapenek, lehen apartatuko c) letran aipatzen direnak, lau urteko indarraldia izango dute. Izendapena berri ahal izango da, hurrengo lehen aldian ezarritakoa eragotzi gabe.

Kontseiluko bokalak kargutik kentzeko erabakia autonomia-erkidegoko organo eskudunak hartuko du, bokal horiek ordezkariak dituzten antolakundeek, organismoek eta erakundeek hala proposatuta».

Arau horietan ezarritakoa betetzeko, Estatuko Portuak erakunde publikoaren lehendakariak jakinarazi du proposamena egin duela Estatuko Administrazio Orokorren Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluan duen bokal bat berritzeko.

Horiek horrela, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean eta Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak 2022ko maiatzaren 31n egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Francisco Javier Asúa Pinedo jauna berri izendatzea Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko bokal, Estatuko Administrazio Orokorren ordezkariak.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek ondorioak izango ditu bokala berri dela Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko lehendakariari jakinarazten zaion egunetik aurrera; dekretua, bestalde, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko maiatzaren 31n.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.